

Gida didaktikoa

HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I

ARTZAINA ETA MARI

ARTZAINA ETA MARI

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gidaren azalpena:

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu. Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea. Lanari funtzionaliterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea. Proiektua hauxe litzateke: beste ikasgelarako antzezpena prestatzea. Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak, hizkuntzazko tailerrak alegia, antola daitezke. Beste aldetik, istorio honek aukera ematen du "eztabaida" egiteko.

HELBURUAK:

- . Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazio antzeztua egitea.
- . Ekintzak azaltzen jakitea, ordena kronologikoari jarraituz eta irudia erabiliz.
- . Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatuetan, hizkuntzaren gaineko hausnarketa egitea.
- . Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

JARDUERAK:

Proiektua.- Antzezpena prestatzea: gidoi literarioa egokitzea, buruz ikastea eta antzezpena bideoz grabatzea.

FASEAK:

a) Mezuaren planifikazioa:

Antzezpena prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan da ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera. Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuinak hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, hurrek kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

SEMANTIKA:

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: isilarazi, nazkatu, uxatu...

b) Testualizazioa: (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA).

AHOTSAK: ondo zehaztuko ditugu narratzailea eta pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Gidoiaren egokitzapena egitea proposatzen dugu; hartara, rolak banatu ondoren, nor bere testua egokituko du, mezua aldatu gabe.

KOHESIOA

Izen-aditzen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura.

Aditz-denbora eta aspektua: denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

Ariketak:

AHOTSAK:

- Eman gidoi literarioa, egokitze.
- Eman testu idatzia, baina *take*-ak gaizki kokatuta. Haurrek zuzendu beharko dute.

DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:

- Eman testu-zati bat deklinabide markarik gabe, osatzeko.

ADITZ KOHESIOA: figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:

- Kendu narratzailearen testuei antolatzaileak eta eskatu jartzeko.
- Eman narratzailearen testua aditz-aspektua gaizki jarria duela, eta jarri denon artean ondo, zergatikoa azalduz.

ELEMENTU EZ-LINGUISTIKOEN esanahia:

Antzezpena prestatzerakoan, erabaki KEINUAK eta INTONAZIOA, hau da, ekintzak nola egin behar diren eta nola adierazi behar diren.

IRUDIA:

Planoak: lehen plano eta plano orokorra.

Dekoratuak: mezuaren eta kolorearen arteko erlazioa.

ATREZZOA.

PUNTUAZIOA:

Antzezpena prestatzerakoan, bai gidoia egokitzerakoan, bai irakurketa egiterakoan, ohartarazi puntuazioaren balio semantikoaz.

ADITZONDOAK:

Akotazioetan, idatzi egitea erabaki den interpretazioa; hartara, aditzondoak erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Gidoi literarioa:

ARTZAINA ETA MARI Itz.: Santi Brouard Aldamiz

IZENBURUA: Mari eta artzaina.

NARRATZAILEA: (OFF) Duela denbora gutxi, bi hurrek, Sarak eta Jonek, gauza bat kontatu zidaten. Behin herrian gauza berezi bat gertatu zitzaion. Dirudienez, herriaren gainetik txori beltz batzuk hegan zebiltzan eta musika tristea zabaltzen zuten. Musikak jendearen bihotza goibeltzen zuen. Betiko lagunak elkarrekin haserretzen hasi ziren, txoriek abestu beharrean, garrasi besterik ez zuten egiten, eta soinu beldurgarri hura Mariren etxetik zetorren. Istorio honetako protagonista Mari da. Garai batean ez zituen lagunak maite eta artzain bati esker ikasi egin zuen. Marik musika jotzen zuenean, inguru guztia goibeltzen zen eta jendea triste-triste jartzen zen.

(A.B.)

MARI: (AD LIB) Hau da hau giro tristea! ... Zabal zaitezte, txoriok! ...
Eta bazter guztiak ilundu eta mikaztu itzazue! (BARRE)

NARRATZAILEA: (OFF) Eta esan bezala, Mariren turutatik txori beltzak sortzen zirenean, hurrek elkar jotzen zuten eta triste-triste jartzen ziren.

NARRATZAILEA: (OFF) Baina, egun batean, herriaren beste aldera, Mariren notak ailegatzeko ez ziren lekura,... artzain txiki bat heldu zen. ... Oso apala zen eta Txomin zuen izena. ... Musikaria zen, baina bere musikak jendearen bihotzak alaitzen zituen. ... Animaliak ere poz-pez jartzen ziren eta haurrak jolasten hasten ziren musika entzutean. ... Hain zen alai musika hura, ezen Mariren musika tristea desagerraraztea lortu baitzuen. ... Txoriek poz-pez abesten zuten eta txori beltzak desagertu ziren. Hortaz, Mariren musikak indarra galdu zuen.

SARA\JON: (AD LIB) ...

Ergel halakoa! Ikusiko duzu.

Nor da hemen ergela baina! Artaburu inozoa!

(AD LIB) ...

Hara! Begira! Bai txori politak!

Nondik agertu dira baina!

Adiskide! Zatoz ene besoetara!

(AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Artzain txikiaren txirulari aurre egiteko, Marik indartsuago jo zuen, baina alferrik. Txominen musikak indar handiagoa zuen.

MARI: (AD LIB) Musika nazkante hori isilarazi behar dut. (AD LIB) ... Zergatik ez duzu gaintzen? Ez duzu ezertarako balio! Kaka zaharra!

NARRATZAILEA: (OFF) Txominek lasai bizi nahi zuen, besterik ez, baina, nahi gabe ere, Marirekin liskar bat izango zuen. Marik min egin nahi zion, kosta ahala kosta. Zein gaiztakeri egingo zion pentsatzen hasi zen.

MARI: Nork edo nondik sortuak diren jakin behar dut, bai horixe!

NARRATZAILEA: (OFF) Hurrengo egunean, Mari goizean goiz irten zen etxetik. Jakin-mina zuen: nor ote etorri berri hori? Sara eta Jon, lagun egin ziren berriro eta Txominen etxearen aurrean zeuden hitz egiten. Txomin herrian zegoenetik hori bakea!

SARA\JON: (AD LIB) ...

MARI: Kendu paretik, txotxolo halakoak! ... Utzi pasatzen, ez dut-eta egun osoa jai!

SARA\JON: (AD LIB) ...

Baina zer dio honek?

Ene! Beldurra ematen dit!

(AD LIB) ...

MARI: Ospa! Alde! ... Eta ez gero hona sekula hurbildu!

NARRATZAILEA: (OFF) Mari sutan zegoen eta umeak uxatu zituen. Ez zuen inor errespetatzen. Sara eta Jon harrituta geratu ziren ez baitzen normala Mari herrira joatea.

SARA\JON: (AD LIB) ...

Zertan dabil hemen baina?

MARI: Zer ari zarete begira? Tximino-aurpegia dut, ala? Alde hemendik, mukizu halakoak!

(AD LIB) ...

SARA\JON: (AD LIB)

MARI: ... (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Mari Txominen bila abiatu zen, ditxosozko txoriak nondik sortzen ziren jakiteko. Azkenik jakin zuen! Txomin ikusi zuenean, adi-adi behatu zuen. Aurkitu behar zuen gizon txiki horri min egiteko moduren bat, alajaina! (A.B.)

MARI: E! Aizu, ipotx hori! Utzi izorratzeari! Nork eskatu dizu ba jotzen hasteko?

TXOMIN: (AD LIB) ... Nirekin ari zara?

MARI: Bai ba, norekin ba? Ipotx halakoa!

TXOMIN: Ipotxa ni?

MARI: Bai. Ipotx ñimiñoa zara! Arkakuso kakanarrua! Eta txirula nazkagarri hori berriro jotzen baduzu, jo eta bertan zanpatuko zaitut! ... (AD LIB) Baina, tira, nahi izango bazenu, lagunduko nizuke. ... (AD LIB) Ederra sartuko diot! (AD LIB BARRE)

...

NARRATZAILEA: (OFF) Txominek ez zuen ezer ulertzen. Inoiz ez zioten iseka egin eta are gutxiago bere musika txarra zenik esan! Emakume horrek arrazoi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Gauean, amesgaizto bat izan zuen: hurrek ere musika gogaikarria egiten zioten.

MARI: Bai! Ipotx ñimiñoa zara!

SARA: Ipotxa! Ipotxa!

JON: (AD LIB) ...

MARI: Arkakuso kakanarrua!

TXOMIN: (AD LIB) ...

MARI: Eta txirula nazkagarri hori berriro jotzen baduzu...

TXOMIN: ... (AD LIB) ...

MARI: ... jo eta bertan zanpatuko zaitut! (AD LIB BARRE)

TXOMIN: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Goiz hartan, goibelduta, triste eta penaturik esnatu zen Txomin. Behin eta berriro galdetzen zion bere buruari zer egin behar zuen denen gustukoa izateko?

TXOMIN: (AD LIB) ... Egia da. Oso txikia naiz. Nola ez naiz lehenago konturatu? Ez naiz besteak bezalakoa. ... (AD LIB) ...

MARI: Nahi izango bazenu, lagunduko nizuke.

TXOMIN: (AD LIB) Hara! Lagunduko lidakeela ez du esan ba!

NARRATZAILEA: (OFF) Txomin, urduri, Mariren etxera joan zen laguntza onartuko zuela esatera. Gizagaixoa hain zen ona ezen pertsona guztiak onak direla uste baitzuen. Emakumeak harrituta zeukan.

TXOMIN: (AD LIBak) Hara! Zer du honek hemen? ... (AD LIB) Hau nazka!

MARI: Azkenean, etortzea deliberatu duzu, e?

TXOMIN: Nola zenekien etortzekoa nintzela?

MARI: Sorgina naizelako.

TXOMIN: Orduan jakingo duzu zer nahi dudan, ezta? ... (AD LIB) ...

MARI: (OFF) (AD LIB) (ON) Bai ba, noski. Baina jakin behar duzu min hartuko duzula.

TXOMIN: Berdin dit. Gustura jasango dut.

MARI: Zergatik?

TXOMIN: Besteak bezalakoa izan nahi dudalako.

MARI: (BARRE) Damutu egingo zara!

TXOMIN: Eta zuk nola dakizu?

MARI: Ez dizut esan ba sorgina naizela?

TXOMIN: (OFF) Zeu zara iluntasuna zabaldu duena?

MARI: Bai, jauna.

TXOMIN: Ez duzu argia gogoko?

MARI: Ez. ... Ezta jendea ere. ... Jendearekin egoteak ez baitu merezi.

TXOMIN: Ba nik, hain zuzen, guztiz kontrakoa uste dut. Bai horixe!

MARI: Hor konpon! Hori bada zuk nahi duzuna, izan bedi zuk nahi duzun bezala!

TXOMIN: (AD LIB) ...

MARI: (OFF) (AD LIB) ...

TXOMIN: (AD LIB) E? Hemen ez da ezer gertatzen...

MARI: Zertan zabilta ba oraindik hemen?

TXOMIN: Sorginkeria gauzatu zain..

MARI: Tira, zoaz etxera. Eta bihar goizean... gauzatuko da sorginkeria.

TXOMIN: Agur ba.

MARI: Bai, agur.

NARRATZAILEA: (OFF) Txomin poz-pezik joan zen etxera arazo guztiak konpondu zituela uste baitzuen. ... Ez zion usain txarrik hartu, baina sorginkeriak bizimodua erabat aldatuko zion. Gau hartan, Txominek ezin izan zuen begirik bildu, sorginkeriaren eraginez hezurretako mina zeukan eta ez zen makala! Goizean, zoritxar handi bat suertatu zen, txori beltzak zeruan zehar zabaldu ziren, eta beraiekin tristura. Jonek eta Sarak Txominengana jo zuten laguntza eske.

JON: (OFF) Non da? Non da Txomin?

SARA: (AD LIB) Hara! Hori al da?

JON: Ene! Hori kankailua hori!

TXOMIN: (OFF) Ai, ene! (ON) Hau zoritxarra! (AD LIB) ...

SARA: Zer gertatu zaizu baina?

TXOMIN: (AD LIB) Errukarria ni!

JON: (OFF) Handitu egin zara, ezta? Zer duzu, Txomin?

SARA: Goibel gaude denok, txori beltzak herrira itzuli dira eta.

JON: (AD LIB) Horixe! Zergatik ez duzu txirula jotzen?

TXOMIN: Ezin dut. Orain txikiegia da niretzat. ... Ai, gizagaixoa ni!

SARA: Eta nork egin dizu hori?

TXOMIN: (AD LIB) Marik,... baina neuk eskatuta.

JON: Nola bururatu zaizu hori egitea? Hori ergelkeria!

SARA: Ene! (AD LIB)

TXOMIN: (AD LIB) Besteak bezalakoak izan nahi nuen. Horrexegatik!

JON: Ba ederra egin duzu! Hobeto zeunden lehen zinen bezalakoak. Zu zeu eta gu!

SARA: Horixe. Ziri ederra sartu dizu!

TXOMIN: Esango diot ez nagoela batere gustura. (AD LIB)

SARA: Zuk ez duzu Mari ezagutzen. Orain ez dizu lagundu nahi izango.

JON: Ez horixe. Ai, zer egingo ote dugu?

NARRATZAILEA: (OFF) Horrela gertatu zen. Mari etxean zegoen, poz-pozik tronpeta jotzen, gizon txikiari ziria sartzea lortu zuelako. A! Txominek bazekien txirula jotzen, baina akats handia zuen: ez zuen konfiantzarik bere buruarengan! Mari horretaz aprobe txatu zen, ondo aprobe txatu ere! Kasualitatez, edo ez?

MARI: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Baina orduan txori bat jesarri zen Mariren leihoan. Hasieran Marik ez zuen ikusi eta jotzen jarraitu zuen,... baina ikusi zuenean, sentimendu ezezagun bat sumatu zuen bere baitan.

MARI: (AD LIB) Aiba... Nondik agertu zara zu ba?

NARRATZAILEA: (OFF) Handik aurrera, txori beltzak desagertu egin ziren. Mari pozik zegoenez, ez zuen tronpeta jotzen, txoriarekin ematen baitzuen denbora guztia, eta herriko jendearekin eta Txominekin ahaztuta zegoen.

NARRATZAILEA: (OFF) Elkarrekin egoten ziren gau eta egun. Oso lagun minak bilakatu ziren.

MARI: Tori, txoritxo. Jan nahi beste. (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Baina egunak pasatu eta, halako batean, txoriak alde egin zuen. Marirekin ondo bazegoen ere, berak hegan egin nahi zuen. Goiz hartan Mariren tristura egundokoa zen, bere lagunak, lagun bakarrak, alde egin baitzuen! Bere errua izango ote zen? Zergatik egin zuen alde txoriak?

MARI: Txoritxo, txoritxo! ... Non zabilta? ... Non sartu zara baina? Txoritxo!! Txoria!

(AD LIB) ... Nora joan ote da ene txikitxoa?! (AD LIB)

SARA: Eguraldi ederra, ezta?

JON: Bai! Sekulakoa!

SARA\JON: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Herrian gauzak primeran zeuden, lasai eta alai. Sara eta Jon jolasean ari ziren

herriko plazan. Txomin Mariren etxerako bidean konturatu zen herrian lasaitasuna zela nagusi. Bai arraroa!

TXOMIN: (OFF) Aizue, lagunok!

SARA: (OFF) Kaixo, Txomin!

TXOMIN: Zer gertatu da? Non dira txori beltzak?

JON: Txoriak? Aspaldian ez ditugu ikusi.

SARA: Ez dakigu non dauden. Duela egun batzuk besterik gabe desagertu ziren.

JON: Badirudi Mari gaixorik dagoela.

TXOMIN: (OFF) Gaixorik diozu?

SARA: Agian beste herriren batera joan da.

JON: Baliteke, bai.

TXOMIN: Berarekin hitz egin behar dut.

JON: Ba, kontuz ibili. Eta zorte on!

SARA: Bai horixe. Ondo ibili, Txomin!

TXOMIN: Eskerrik asko.

SARA\JON: (AD LIB) Agur, agur! Ikusi arte!
TXOMIN: (OFF) Bai, agur, lagunok! (AD LIB) ...
JON: Haren atzetik joango al gara?
SARA: Bai, bai, goazen.
SARA\JON: (AD LIB) ...
JON: Ai, Sara, etxe honek izugarri ikaratzen nau!
SARA: E-e-ez zaitetz koldarra izan. (AD LIB)
TXOMIN: Espero dut Mari etxean izatea. Bestela, honela geratuko naiz betiko eta ez dut nahi.
JON: Kanpoan bada, liburuen artean bilatu beharko dugu sorginkeriaren konponbidea.
SARA: Eta beste hainbat gauza ere bai.
JON: Garaiezinak izango ginateke.
SARA: Jaun eta jabe, bai horixe!
JON: (AD LIB)
TXOMIN: Baina zer diozue?! Oroimen txarra duzue gero! ... Zuek uste duzue Mari zoriotsua dela? Beti bakar-bakarrik, gainerakoak izorratzen? E?
SARA\JON: (AD LIB) Ba... guk...
TXOMIN: Nik ez dut uste, ez horixe!
SARA: Baliteke.
JON: Ez zait, ba, bururatu, horrela ikustea.
SARA: Nork esango luke!
JON: Bai ba, agian arrazoi duzu.
TXOMIN: Beti izorratzen ibiltzen dena bihotzean tristura handia duelako ibiltzen da horrela.
SARA: Eta zuk nola dakizu ba?
TXOMIN: (AD LIB) Urteak, neska, urteak.
TXOMIN: Tira, beraz, zuek hemen geratuko zarete.
SARA: Ikusi ere ezin dugu egin?
JON: Isilik egongo gara!
TXOMIN: Berehala etorriko naiz. Aditu duzue?
NARRATZAILEA: (OFF) Txoriari esker, Mariri gaiztakeriak egiteko beharra desagertu zitzaion eta adiskideak izatea zein ona zen ikasi zuen. Orain ulertzen zuen zer zen triste egotea! Gaizki sentitzen zen herria triste jartzeagatik. Hain zegoen triste ezen gaixotu egin zen ia. Ohean ematen zuen egun osoa.
NARRATZAILEA: (OFF) Txomin beldurtu egin zen Mari hain triste ikusi zuenean. Beharbada orain lehen baino gaiztoagoa izango zen.
MARI: (NEGAR AD LIB) ... Zertan zabilta hemen? Zertara etorri zara?
TXOMIN: Sorginkeria bertan behera utz dezazun eskatzera, honela ez bainaiz zoriotsu. Lagunduko al didazu?
MARI: (AD LIB) ... Bai. Izan bedi nahi duzun bezala. (AD LIB)
NARRATZAILEA: (OFF) Txomin oso kezkatuta zegoen: ez zitzaion bururatuko beste aldrebeskeriaren bat, ezta?
TXOMIN: (AD LIB) ...
TXOMIN: (AD LIB) Ene! Zer da hau! Txikia naiz berriro! Ufa! Eskerrik asko, Mari! Oso zoriotsu egin nauzu! ... Hau amesgaiztoa! ... Eskerrik asko!
NARRATZAILEA: (OFF) Mari, damututa, txoria gogoratu zuen, baita alaitasuna zer zen ere. Agian artzain txikiak lagunduko zion, zergatik ez? Gizontxoaren txirularen soinu politik entzunez gero, beharbada txori laguna itzuli egingo zen.
SARA\JON: (AD LIB) ...
NARRATZAILEA: (OFF) Oraindik ere triste zegoen eta gaixo sentitzen zen, baina txoria itzuliko zelako itxaropenak ohetik altxatzeko indarrak eman zizkion.

MARI: (AD LIB) Ai, ai, errukarria ni! ... (AD LIB) ... Non ote dabil nire laguntxo? Zergatik ez da behingoz itzultzen? Txoritxo, non zabilta? (AD LIB) ...

TXORIA: Kaixo, Mari.

MARI: Ene! Zer entzuten dut? (AD LIB) (OFF) Aiba! Zeu zara! ... Etorri zara! Zatoz niregana! Zatoz, polit hori!

TXORIA: Bai, hemen naiz berriro. Zergatik lagundu diozu Txomin txikiari?

MARI: Ai,... tristura zer den dakidanetik,... ezin dut inor sufritzen ikusi. Ikasgai ederra jaso dut, bai. (AD LIB)

MARI: Eta zu zergatik joan zinen?

TXORIA: Oraindik ez zara konturatu, ala?

MARI: Mm,... uste dut baietz.

TXORIA: Bazen garaia ba!

MARI: Orduan... nirekin geratuko zara?

TXORIA: Ez.

MARI: Ezetz?! (AD LIB) Ba-ba-baina... ez didazu barkatuko? ... (AD LIB)

TXORIA: Bai, nik bai. Baina, zera...

MARI: Ba... nik uste nuen... zera... nirekin geratzeko asmoa zenuela.

TXORIA: Noizean behin, bisitatxoa egitera etorriko naiz, nahi baduzu. Baina betiko geratzea... hori gehiegitxo iruditzen zait.

MARI: (AD LIB) Ai ene! Zer egingo ote dut nik? (AD LIB) ...

TXORIA: Agian zure auzokoen adiskide izan zaitezke. Ez zaizu bururatu?

MARI: Nahi izango ote dute? ... Hain gaiztoa izan ondoren,... ez dakit...

TXORIA: Tira ba, egizu proba. Batzuk beharbada ez. Baina beste batzuk bai. Txomin artzain txikiak, esate baterako.

MARI: Baliteke, bai... (AD LIB) Ziur zaude?

TXORIA: Bakarrik egotea gustuko baduzu, gera zaitezke hor. Niri bost axola. Zeure arazoa duzu. Agur, ikusi arte!

MARI: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Mari oso triste jarri zen zuen lagun bakarrak alde egin zuenean, baina ulertu zuen txoriak bere bideari jarraitu behar ziola. Gainera, beste pertsona batzuk ere alaitu egingo ziren haren abestiak entzutean. Baina kostatu egiten zitzaion tristura hura gainditzea. Hala ere, indarrak bildu eta egin egin behar zuela erabaki zuen. Bai horixe! Txominekin joango zen bera ere musika jotzen!

MARI: (OFF) Ai, ai, onartuko ote naute? Ez dakit ba... (AD LIB) Tira, egin egin behar dut!

(ON) Txomin! Txomin! ... Itxaron! Ni ere zurekin noa! ... Itxaron!

AMONA\AITONA\TXOMIN: (AD LIB) ...

MARI: Hara! Zer da hori? Bai musika polita! (AD LIB) ...

AMONA\AITONA\TXOMIN: ... (AD LIB) ...

MARI: Tira, neu ere haiekin noa! (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Mari herriaren beste puntara heldu zenean, hura sorpresa hartu zuena! Txominek jai bat antolatu zuen gauzak bere onera itzuli zirela ospatzeko. Mari musikak txundituta geratu zen. Erritmoari jarraitu zion eta konturatu gabe, lagunak ere egin zituen. Eta hemen amaitzen da gaurko istorioa. Harrezkero, ederki asko pasatzen zuten musika alai jotzen. Txoria, bere aldetik, noizean behin herrira joaten zen Mari ikustera, elkarren lagun minak egin baitziren.

AMONA\AITONA\TXOMIN\MARI: (AD LIB) ...

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskal herriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Barcelona.
- JACOBS, J. (1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Barcelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S. (1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Barcelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Barcelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S. Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-06-25**

LEGE GORDAILUA: : SS-1584/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**